



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko ekainaren 29a

97. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Aiegiko Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Aiegiko Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 24an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Aiegiko Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Aiegiko Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- | | |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>I. Sarrera (3. or.).</p> <p>II. Iritzia (5. or.).</p> <p>III. Udalaren eta Gastizun udal sozietatearen 2015eko kontu orokorraren laburpena (7. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">III.1. Udalaren 2015eko Kontu Orokorraren laburpena (7. or.).</p> | <p style="padding-left: 20px;">III.2. Gastizun SL sozietatearen 2015eko kontuaren laburpena (11. or.).</p> <p>IV. Ondorioak eta gomendioak (12. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.1. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa (12. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.2. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea (15. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.3. Alderdi orokorrak (16. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.4. Udaleko langileak (16. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.5. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan (18. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.6. Transferentzia arrunten ondoriozko gastuak (19. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.7. Inbertsioak (19. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.8. Udal zergak (20. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.9. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk (21. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.10. Transferentzien bidezko diru-sarrerak (21. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.11. Ondare bidezko diru-sarrerak (22. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.12. Ibilgetua. Inbentarioa (22. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.13. Itxitako aurrekontuetako zordunak eta hartzekodunak (23. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.14. Aurrekontuz kanpoko zordunak eta hartzekodunak (24. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.15. Hirigintza (25. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.16. Gastizun SL udal sozietatea (26. or.).</p> |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

I. SARRERA

Aiegiko Udalaren Osoko Bilkurak, 2015eko urrian, txosten bat eskatu zion Ganbera honi Udalaren 2011-2015 legegintzaldiko kontabilitate publikoari buruz.

Kontuen Ganberak 2016ko lanerako programan sartu zuen Aiegiko Udalaren 2015eko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa.

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legean ezarritakoari eta 2016rako daukan jarduketa-programari jarraituz, Aiegiko Udalaren 2015eko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditu. Kontu horiek, funtsean, aurrekontuaren likidazio-espeditentak osatzen ditu, horren barne honako hauek direla: aurrekontu-emaizta, egoera ekonomiko eta finantzarioari buruzko espeditentea, emaitza ekonomikoarekin, eta kontuen balantzea eta eranskinak – diruzaintzaren eta zorraren egoera-orriak, bestak beste–.

Urteko kontuen finantza-auditoriarekin batera, legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Udalak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2015eko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Aiegiko Udalarik 2015eko ekitaldian aplikatzekoa zaion arau-esparrua, funtsean, honako hauek osatuta dago: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea eta Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoa, bai eta sektorekako araudi indarduna ere.

Aiegiko udalerriak 9,57 km²ko azalera du, eta 2015eko urtarrilaren 1ean, 2.217 biztanle dauzka.

Udalaren datu ekonomiko eta langileei buruzko datu garrantzitsuenak honako hauek ziren 2015eko ekitaldiaren itxieran:

	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Lanpostuak (plantilla)
Udala	1.262.105	1.172.285	11

2014an, Udalak Gastizun SL merkataritza sozietatea eratu zuen, udalaren Ardantze kirol instalazioak kudeatzeko.

Gastizun SL udal sozietateak bere urteko kontuak aurkeztu ditu, honako hauek osatuak: balantzea, emaitzen kontua, ondare garbiko alaketen egoera-orria eta eskudiruko fluxuen egoera-orria. Bi ekitaldi horietako bakarrean ere ez zen haiei buruzko kanpoko auditoriarik egin.

Gastizun SL udal sozietateak honako datu ekonomiko eta langileenak zeuzkan 2015eko itxieran:

	Diru-sarrerak	Gastuak	Emaitza	Langileak
Gastizun SL	502.527	579.357	-76.830	11,7

Udalak ondoko entitateetan hartzen du parte:

- Jurramendiko Mankomunitatea, uraren eta hiri hondakin solidoen zerbitzuak emateko.
- Teder Tokiko Garapenerako Agentzia

Ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri dira:

Zerbitzua	Udala	Mankomunitatea	Kontratuak	Udal sozietatea
Zerbitzu administratibo orokorrak	X			
Argiteria publikoa	X		X	
Hilerria	X		X	
Herriguneetarako sarbidea, zolaketa	X			
Gizarte zerbitzuak	X			
Ur-hornidura		X		
Hiri-hondakinak		X		
Kale garbiketa			X	
Udal-kiroldegia.		X		
Ardantze kirol instalazioak				X
Turismoa eta eskualdearen garapena		X		
Hirigintza	X		X	
Ludoteka	X			

Entitatearen aurrekontua 2014ko abenduaren 29an onetsi zuen Osoko Bilkurak.

2014ko kontua dela-eta, Ganbera honek ez du auditoriarik egin. Ekitaldi horri buruzko informazioa, txosten honetan adierazia, informazio-hutsez ematen da.

Txostenak lau atal dauzka, sarrera hau barne; bigarrenean, Udalaren kontu orokorraren legezketasunari eta finantzei buruz daukagun iritzia ematen dugu. Hirugarrenean, Udalaren finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat ematen dugu. Azkenik, laugarrenean, iritzian eraginik ez duten oharpenak eta udalaren barne-antolamendua eta -kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun gomendioak ematen ditugu.

Azterketa-lana 2016ko azarotik 2017ko otsailera bitartean egin du auditoriako bi teknikarik eta auditore batek osatutako lantaldeak, eta Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzak ere izan dute.

Jarduketa honen emaitzak Udaleko egungo alkateari azaldu zitzaizkion, bai eta 2015eko ekainera arte kargu horretan aritutakoari ere, kasua bazen egokitzat jotzen zituzten alegazioak aurkezteko, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legeko 14. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Epea iraganda, ez dute alegaziorik aurkeztu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Aiegiko Udaleko langileei, beren lankidetzarengatik.

II. IRITZIA

Aiegiko Udalaren 2015eko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako III. atalean.

UDALAREN ERANTZUKIZUNA

Kontu-hartzailea da kontu orokorrak egiteko ardura duena. Halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzepzioa, ezarpena eta mantentzea.

Udalak, gainera, bermatu beharko du finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela indarreko araudiarekin.

Kontu orokorra 2016ko ekainaren batean onetsi zen, legezko epearen barruan.

NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezketasunari buruz. Horretarako, erantzukizun hori bete dugu kanpo kontroleko erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek exigitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburu honekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezketasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezketasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzi emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasunaren eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizketasunaren ebaluazioa, bai eta kontu orokorren aurkezpenaren ebaluazioa ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure fiskalizazio-iritzia emateko.

Egin dugun fiskalizazioaren emaitza modura, hona gure **iritzia**:

*II.1. 2015eko KONTU OROKORRARI BURUZKO FINANTZA-IRITZIA**AURKAKO FINANTZA-IRITZIAREN OINARRIA*

a) Udalak ez du behar bezala identifikatu eta baloratutako ondasunen inbentariarik; hori dela eta, ezin izan dugu balantzeko ibilgetuaren saldoaren arrazoizkotasuna egiaztatu -9,6 milioi eurotan zenbatetsita dago-.

b) Ez zaizkio balantzeko ibilgetuari egotziko gastuen aurrekontuaren likidazioko VI. kapituluan jasotako inbertsioak, 90.719 euro egiten dutenak.

c) Aurrekontuz kanpokoen saldo zordunek eta hartzekodunek akatsak, bikoiztasunak eta jada ordainduta beharko zuten zenbatekoak badauzkate: 43.688 euro ordainketa bikoiztuetan edo gehiegizkoetan; 55.137 euro aplikatzeko dauden diru-sarreretan, eta -3.057 euroko saldo negatiboa montepioaren atxikipenean. Horrenbestez, aurkitutako akatsak tarteko, aurrekontuz kanpoko saldoak ez dira adierazgarriak eta diruzaintza-gerakinari eragiten diote.

d) Itxitako aurrekontuetako hartzekodunen hasierako saldoa aldatu da, hilerriko inbertsioak bertan sartzeko. 2014an egindako inbertsioak dira, 90.751 eurokoak, eta gastuen aurrekontuari egotzi behar zitzaizkion.

e) Itxitako aurrekontuen diru-bilketa zaileko eskubideen -diruzaintza-gerakina gutxitzen dute-kalkuluak behar baino 21.437 euro gehiago jasotzen ditu.

f) Ez da errespetatzen gastuetarako kredituen muga-izaera: 22.437 euroan gainditu dira.

g) Aurrekontu-emaizta doituak behar baino 18.612 euro gutxiago jasotzen ditu.

FINANTZA-AUDITORIAKO IRITZIA

Gure iritziz, "Aurkako finantza-irritziaren oinarria" izeneko aurreko atalean azaldutako egitateen eragin oso adierazgarria dela eta, urteko kontuek, alderdi aipagarri guztietan, ez dute irudi zehatza erakusten Aiegiko Udalaren ondareari eta finantza-egoerari dagokienez 2015eko abenduaren 31n, ez eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoiei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzarioari buruzko arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuen inguruko printzipio eta irizpideei jarraituz.

BESTE GAI GARRANTZITSU BATZUEI BURUZKO PARAGRAFOA

Kontabilitateko prozedurak eta irizpideak zehaztu gabe daude. Barne kontrolerako ezarri den sistema ez da behar adinakoa: ez dira aztertzen sistema informatikotik sortutako kontabilitateko egoera-orriak, eta zaila da eginkizunen bereizketa ezartzea, zeren eta bi pertsona baitira Udalaren prozedura administratibo, juridiko eta kontabilitatekoiei aurre egin behar dietenak, eta prozedura horiek gero eta gehiago eta gero eta zailagoak dira.

Bere plantilla organikoa aztertu eta bere eginkizunak eraginkortasunez betetzeko beharko lukeen langile-egitura gutxienekoa zehaztu behar du Udalak.

II.2. LEGEZKOTASUNAREN BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Aiegiko Udalaren 2015eko ekitaldiko kontu orokorrean jasotako jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

III. UDALAREN ETA GASTIZUN UDAL SOZIJATEAREN 2015EKO KONTU OROKORRAREN LABURPENA**III.1. UDALAREN 2015eko KONTU OROKORRAREN LABURPENA**

Atal honetan, Udalaren kontu orokorrean jasotako kontabilitatearen egoera-orriei buruzko laburpen bat ematen dugu.

III.1.1. UDALAREN 2015eko AURREKONTU-EXEKUZIOAREN EGOERA-ORRIA**Gastuak**

Partidaren deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko bete-behar garbiak	Betetzea, %	Ordainketak	Ordainketen ehunekoa	Ordaintzeko daudenak
1 Langileak	555.800	0	555.800	477.306	86	476.653	100	653
2 Ondasun arruntak eta zerbitzuak	509.750	3.042	512.792	472.437	92	421.008	89	51.429
3 Finantza-gastuak	12.000	0	12.000	6.618	55	6.618	100	0
4 Transferentzia arruntak	62.150	19.206	81.356	70.887	87	59.226	84	11.661
6 Inbertsio errealak	245.100	0	245.100	90.719	37	77.136	85	13.583
7 Kapital-transferentziak	100	0	100	0	0	0	0	0
8 Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
9 Finantza-pasiboak	55.100	0	55.100	54.318	99	54.318	100	0
Gastuak, guztira	1.440.000	22.248	1.462.248	1.172.285	80	1.094.960	93	77.325

Diru-sarrerak

Kontzeptua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketa	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetzearen ehunekoa	Kobrantsak	Kobrantsen ehunekoa	Kobrantszeko daudenak
1 Zuzeneko zergak	422.600	0	422.600	436.070	103	404.945	93	31.125
2 Zeharkako zergak	52.200	0	52.200	31.435	60	21.381	68	10.054
3 Tasak eta bestelako diru-sarrerak	97.200	0	97.200	100.349	103	99.722	99	627
4 Transferentzia arruntak	692.900	0	692.900	657.043	95	654.972	100	2.071
5 Ondare bidezko diru-sarrerak	42.500	0	42.500	34.439	81	34.419	100	20
6 Inbertsioen besterentzearen bidezko diru-sarrerak	122.600	0	122.600	0	0	0		0
7 Kapital-transferentziak	9.900	0	9.900	2.768	28	2.768	100	0
8 Aktiboen aldaketa	0	22.248	22.248	0		0		0
9 Pasiboen aldaketa	100	0	100	0		0		0
	1.440.000	22.248	1.462.248	1.262.105	86	1.218.207	97	43.898

III.1.2. UDALAREN AURREKONTU-EMAITZA

Izena	2015	2014	Aldea (%)
+ Aitortutako eskubide garbiak	1.262.105	1.229.970	3
- Aitorturiko betebeharrak garbiak	1.172.285	1.354.043	-13
Aurrekontu-emaiza	89.820	-124.073	-172
Doikuntzak	0	0	
- Finantzaketaren desbideratze positiboa	0	0	
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboa	0	0	
+ Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	0	0	
+ Merkataritzako eragiketen emaitza	0	0	
Aurrekontu-emaiza doitu	89.820	-124.073	-172

III.1.3. DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2015eko ABENDUAREN 31n

Kodea	Izena	2015	2014	Aldea (%)
1	+ Kobratzeko dauden eskubideak	-13.730	127.077	-111
2	+ Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	43.898	33.116	33
3	+ Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	210.113	194.157	8
4	+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak:	-45.646	108.285	-142
5	- Bilketa zaileko eskubideak	222.094	208.481	7
6	- Ordaintzeko dauden betebeharrak	145.941	267.319	-45
7	- Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	77.325	153.975	-50
8	- Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	708	47.894	-99
9	- Aurrekontuz kanpoko gastuak	67.907	65.450	4
10	+ Diruzaintzako funts likidoak	206.244	268.164	-23
11	+ Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	0	
12	= Diruzaintza-gerakina, guztira	46.573	127.922	-64
13	Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	0	0	
14	Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	0	0	
15	Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	46.573	127.922	-64

III.1.4. UDALAREN EGOERARI BURUZKO BALANTZEA 2015eko ABENDUAREN 31n

Aktiboa

Kontua	2015	2014	Aldea (%)
Ibilgetua	9.617.313	9.617.313	0
1 Ibilgetu materiala	6.379.616	6.379.616	0
2 Ibilgetu ez-materiala	17.964	17.964	0
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	3.070.822	3.070.822	0
4 Herri-ondasunak	148.911	148.911	0
5 Finantza-ibilgetua	0	0	
6 Lagapen edo adskripzio bidez jasotako ondasun eta eskubideak	0	0	
Zirkulatzaila	414.608	603.722	-31
7 Itxitako aurrekontuetako eta aurrekontuez kanpoko zordunak	164.467	302.441	-46
8 Aurrekontuko zordunak	43.898	33.116	33
9 Finantza-kontuak	206.244	268.164	-23
Aktiboa, guztira	10.031.920	10.221.034	-2

Pasiboa

Kontua	2015	2014	Aldea (%)
Funts berekiak	8.962.571	8.975.988	0
1 Ondarea eta erreserbak	8.783.724	8.942.714	-2
2 Entregaturiko ondasun eta eskubideak	0	0	
3 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	178.846	33.274	437
Epe luzeko zorrak	923.409	977.727	-6
4 Jesapenak, maileguak eta jasotako fidantzak eta gordailuak	923.409	977.727	-6
Epe laburreko zorrak	145.941	267.319	-45
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	68.616	113.344	-39
6 Aurrekontuko hartzekodunak	77.325	153.975	-50
Pasiboa, guztira	10.031.920	10.221.034	-2

III.1.5. UDALAREN 2015eko EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA

Zor	2015	2014
61 Langile-gastuak	477.306	523.736
62 Finantza-gastuak	6.618	7.762
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	472.437	430.252
67 Transferentzia arruntak	70.887	65.569
68 Kapital-transferentziak	0	0
69 Kalkulatutako gastuak	0	0
D80 Ekitaldiko emaitza negatibo arrunta	0	0
D82 Inbertsioen salmentarengatiko galerak eta aparteko bestelako galerak	0	0
D83 Finantza aktiboen salmentarengatiko galerak	0	0
D84 Bajak eta itxitako aurrekontuen deuseztapenak	90.753	145.048
D89 Ekitaldiaren emaitza ekonomiko negatiboa	0	0

Hartzeko	2015	2014
70 Salmentak	100.349	93.088
71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	34.439	36.268
72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuoak	327.542	303.499
73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	106.918	104.137
76 Transferentzia arruntak	657.043	644.245
77 Kapitalaren gaineko zergak	33.044	24.193
78 Bestelako diru-sarrerak	0	0
H80 Ekitaldiaren emaitza korrontea	0	0
H82 Inbertsioen salmentarengatiko irabaziak	0	0
H83 Finantza aktiboen salmentaren irabaziak	0	0
H84 Altak eta preskripzioak, itxitako aurrekontuak	37.510	211
H89 Ekitaldiaren emaitza ekonomiko positiboa	178.846	33.274

III.2. GASTIZUN SL SOZIETATEAREN 2015eko KONTUAREN LABURPENA

Atal honetan, Gastizun SL udal sozietatearen kontabilitateko egoera-orriari buruzko laburpen bat ematen dugu.

III.2.1. GASTIZUN SLREN EGOERA-BALANTZEA

Aktiboa	2015	2014	Pasiboa	2015	2014
A.- Aktibo ez-korrontea	51.659	15.701	A) Ondare garbia	-104.570	-27.220
Ibilgetu materiala	51.539	15.101	Kapitala	3.500	3.500
Finantza-inbertsioak epe luzera	120	600	Aurreko ekitaldietako emaitzak	-30.720	
B) Aktibo arrunta	16.538	32.995	Ekitaldiko emaitzak	-77.350	-30.720
Merkataritza-zordunak	720	4.024	C) Pasibo korrontea	172.767	75.916
Eskudirua	15.818	28.971	Epe laburreko zorrak	6	0
			Hartzekodunak	149.647	75.916
			Epe laburreko ekintzak	23.114	0
Aktiboa, guztira	68.197	48.696	Pasiboa, guztira	68.197	48.696

III.2.2. GASTIZUN SLREN EMAITZEN KONTUA

	2015	2014
1.- Negozio-zifraren zenbateko garbia	481.767	251.010
4.- Hornikuntzak	-12.934	-12.760
5.- Ustiapeneko bestelako diru-sarrerak	16.379	7.089
g.- Langile gastuak	-336.900	-160.583
7.- Ustiapeneko bestelako gastuak	-222.557	-115.230
8.- Ibilgetuaren amortizazioa	-6.966	-246
11.- Ibilgetuaren narriadura eta emaitzak	744	0
12.- Bestelako emaitzak	3.637	0
A) Ustiatzearen emaitzak	-76.830	-30.720
14.- Finantza-gastuak	-519	0
B) Emaidza finantzarioa	-519	0
C) Zergen aurreko emaitzak	-77.350	-30.720
D) Ekitaldiko emaitzak	-77.350	-30.720

IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK.

Ondotik, arlo batzuetan egindako lanaren azterketa xehea ematen dugu, eta, Ganberaren iritziz, Udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko iruzkin, ondorio eta gomendio nagusiak emanen ditugu.

IV.1. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Udalaren 2015erako hasierako aurrekontuak diru-sarreraren eta gastuetarako hasierako kredituen 1.440.000 euro inguruko aurreikuspenak zeuzkan. Aurrekontu-aldaketen bitartez, gastu-kredituek 22.248 euro egin zuten gora, gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinaren kargura.

Aitortutako eskubideek 1.262.105 euro egin zuten: aurreikuspenen ehuneko 86. Aurreko ekitaldikoak baino ehuneko 3 handiagoak izan ziren, nahiz eta kapital-transferentziek ehuneko 89 behera egin zuten. Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga, izaera ausazkoagoa duena, 2014an 7.728 eurokoa izatetik 31.435 eurokoa izatera pasa da.

2015ean aitortutako betebeharrak 1.172.285 euro egin zuten; hau da, behin betiko kredituen % 80. 2014ko ekitaldiko defizita dela eta, Done Jakue Bidea kalearen urbanizazio-lanak ez egitea deliberatu zen, hartarako diru-laguntzarik ez zegoelako.

2015ean aitortutako betebeharren zenbatekoa 2014an aitortutakoa baino % 13 txikiagoa da. Nabarmenezkoa da inbertsioek ehuneko 67 egin zutelara behera: 2014an 272.406 eurokoak izatetik 2015ean 90.719 eurokoak izatera pasa dira.

Haien izaerari erreparatuta, gastu arruntek aitortutako betebeharren ehuneko 87,6 egiten dute; inbertsioek ehuneko 7,8, eta finantza-eragiketek ehuneko 4,6. Diru-sarrera ia guztiak, ehuneko 99,8, arruntak dira; horietatik, transferentzia arruntek diru-sarrera guztien ehuneko 52 egiten dute. Ez dago zorpetze bidezko diru-sarrerarik.

Laburbilduz, Udalak 2015ean eta 2014an gastatutako 100 euro bakoitza honela erabili eta finantzatu dira:

Gastuaren izaera	2015	2014	Finantza-bidea	2015	2014
Langile-gastuak	41	39	Tributu bidezko diru-sarrerak	45	43
Bestelako gastu arruntak	47	37	Transferentziak	52	54
Inbertsio errealak	8	20	Ondare bidezko diru-sarrerak	3	3
Finantza-pasiboak	4	4			
Gastuak, guztira	100	100	Diru-sarrerak, guztira	100	100

Hona Udalaren 2015erako aurrekontuaren betetzeari buruzko datu ekonomikoak eta 2014koarekiko alderaketa:

Adierazleak eta magnitudeak	2015	2014	Aldearen %, 15/14
Aitortutako betebeharrak	1.172.285	1.354.043	-13,42
Likidatutako eskubideak	1.262.105	1.229.970	2,61
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	1.027.248	1.027.319	-0,01
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	1.020.629	1.019.556	0,11
Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak)	90.719	272.406	-66,70
Finantza-eragiketengatiko gastuak (8. eta 9. kapituluak)	54.319	54.318	0,00
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	1.259.337	1.205.430	4,47
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3ra)	567.854	524.917	8,18
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	2.768	24.540	-88,72
Finantza-eragiketengatiko diru-sarrerak (8. eta 9. kapituluak)	0	0	0
Diru-laguntzen mendekotasuna (%)	52	54	-2,00
Tributu bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (%)	55	51	8,19
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	144.138	245	58.731,84
Aurrezki gordina	238.708	185.874	28,42
Finantza-zama (3. eta 9. kapituluak)	60.937	62.080	-1,84
Aurrezki garbia	177.771	123.794	43,60
Zorpetze-maila (%)	5	5	0
Zorpetze-muga (%)	19	15	4,00
Zorpetze-ahalmena (%)	14	10	4,00
Zor bizia	923.409	977.727	-5,56

2015ean, Udalaren diru-sarrerak aurreko urtekoak baino ehuneko hiru handiagoak izan dira; bitartean, gastuak ehuneko 13 egin du behera. Guztizko diru-sarrerak 89.820 euroan gainditzen dituzte guztizko gastuak.

Zuzeneko zergengatik aitortutako eskubideek ehuneko hiru egin dute gora aurreko ekitaldiketik. Zeharkakoak, berriz, ehuneko 307 handitu dira.

Kapital-transferentziak direla-eta aitortutako eskubideak 2.768 eurokoak izan dira; 2014an, berriz, 24.540 euro aitortu ziren. Beherakada hori bat dator inbertsioetan egindako gastuarekin, zeina 2014an 272.406 eurokoa izan eta 2015ean 90.719 euro beheratu den.

Transferentzia arrunten bidezko diru-sarrerak ehuneko bi egin dute gora aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Bi ekitaldietako bakarrean ere ez da erregistratu inbertsioen besterentzeen edo finantza-eragiketen bidezko diru-sarrerarik.

Gastuei dagokienez, langile-gastuek ehuneko 9 egin dute behera. Bi ekitaldietako bakarrean ere ez da ez kapital-transferentzien bidezko, ez aktibo finantzarioen bidezko gasturik erregistratu.

Aurreko ekitaldiarekiko igoera handiena ondasun arruntetan eta zerbitzuetan gertatu da, eta ehuneko 10ekoa izan da. Transferentzia arrunten bidezko gastuek ehuneko zortzi egin dute gora aurreko ekitaldiarekiko. Inbertsio errealek 181.687 euro egin dute behera 2014arekiko: ehuneko 67 gutxiago da hori.

2015ean, kapital-gastuak 90.719 eurokoak izan dira; izaera bereko diru-sarrerak, berriz, 2.768 eurokoak izan dira.

Pasiboen aldatetarengatiko gastuak 2014ko berak dira. Udalak bizirik daukan mailegu bakarren amortizazio konstantearen kuota jasotzen dute. 2007an itundu zen mailegu hori. Finantza-gastuek ehuneko 15 egin dute behera.

Laburbilduz, gastu arruntek berdin jarraitzen dute eta diru-sarrera arruntek ehuneko lau egin dute gora. Diru-sarrera arruntak nahikoak dira izaera bereko gastuak eta zorraren urteko amortizazioa eta haren interesak finantzatzeko.

Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa 144.138 eurokoa da; 2014an, berriz, 245 eurokoa izan zen.

2015eko aurrekontu-emaizta doitu, 89.820 eurokoa, 18.612 euro azpibaloratuta dago, zeren eta ez baita egin diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuengatiko doikuntza.

Epe luzeko zorra 923.409 eurokoa da; horrek diru-sarrera arrunten ehuneko 73 egiten du; egonkortasunari buruzko araudiak, berriz, gehienez ere ehuneko 110 baimentzen du. Udalaren kirol instalazioak finantzatu ditu.

Zorpetze mailak berdin jarraitzen du: ehuneko 5ekoa da. Zorpetzearen mugak eta zorpetzeko ahalmenak ehuneko lau egin dute hobera aurreko ekitaldikoekiko.

Azken batez, diru-sarrera arruntek aukera ematen dute ekitaldian aitortutako betebeharrak guztiak finantzatzeko. Udalak ia ez du inbertsio-gasturik egin, nahiz eta maileguak ituntzeko ahalmena izan. Aurrekontu-emaizta eta aurrezki garbi positiboak lortu dira.

Gastuzun SL sozietateak, 2015eko eta 2014ko ekitaldietan, ondare garbi eta emaitza gero eta negatiboagoak izan ditu. Ondare garbia -27.220 eurokoa izan zen 2014an, eta 2015ean -104.570 eurokoa izatera pasa zen; emaitzak, berriz, -30.720 eurokoak izan ziren 2014an eta -76.830 eurokoak izatera pasa ziren 2015ean.

IV.2. AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA.

Udalak aurrekontu-egonkortasunaren arauaren betetzeari buruzko txostena eman zuen. Ez dago jasota informazioa eman zenik gastu-araua betetzeari buruz, finantza-zorraren jasangarritasunari buruz eta hornitzaileei epean ordaintzeari buruz.

Arau horiek guztiak Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan ezarri ziren.

Udalak egindako kalkuluak berrikusi ditugu edo, kasua bada, Udalak printzipio horiek direla eta daukan egoera baloratu dugu; honako hau da emaitza:

- Oreka/finantzaketa-ahalmena kontabilitate nazionalako terminoetan.

Diru-sarreraren 1. kapitulutik 7.era	1.262.105
Gastuen 1. kapitulutik 7.era	-1.117.957
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	144.148
Doikuntzak	
Kobranta korronteen eta itxitakoen arteko aldea (1. kapitulutik 3.era)	-30.667
+ Sortutako interesetako gastuak, muga-egunera iritsi gabeak	502
+Administrazio publikoengandik jasotako transferentziengatikoko doikuntzak	5.086
Aurrekontuz kanpoko doikuntzak	
Betetako abalen itzulketa	43.688
Finantzaketa-ahalmena	162.757

Horrenbestez, Udalak aurrekontu-egonkortasunaren araua betetzen du, zeren eta, gure kalkuluaren arabera, 162.757 euroko finantzaketa-ahalmena baitu.

- Gastuaren araua

2014ko gastu zenbakaria	2014	2015
Betetako gastua, I. kapitulutik VII. kapitulura	1.299.725	1.117.957
- Besterentzen bidezko diru-sarrerak Inbertsioak	0	0
+/- Gauzatzeko dauden hartzekodunak	0	0
- Zorpetzearen interesak (III. kapitulua)	-7.762	-6.618
- IV. kapituluko diru-sarrera finalistekin finantzatutako gastuak	-130.857	-171.536
- VII. kapituluko diru-sarrera finalistekin finantzatutako gastuak	-24.540	-2.768
2014ko gastu zenbakaria	1.136.566	937.034
2015erako gehieneko gastu zenbakaria		1.151.341
Aldea		214.307

Ratio horren aldaketa-tasa kalkulatu dugu aurrekontu-likidazioari dagokionez; ehuneko 0,82 egiten du. Tasa horrek ehuneko 1,3koa baino txikiagoa izan behar zuenez, bete egiten da gastu-araua.

- Zorraren jasangarritasuna.

Egonkortasunari buruzko araudiaren eraginetarako, ulertzen da zor publikoa dela entitateak urte bakoitzaren abenduaren 31n daukan zorra, egindako kreditu-eragiketen erabili gabeko saldoa kenduta.

Zor bizia	923.409,10
2015eko diru-sarrera arruntak	1.259.336,89
Zor bizia/diru-sarrera arruntak < % 110	73

Horrenbestez, araua betetzen da, zeren eta zor biziak ez baitu gainditzen diru-sarrerara arruntan ehuneko 110a.

- Merkataritza-zorra.

Udalak ez dauka fakturen erregistro elektronikorik. 2015ean, fakturen kontabilitate-erregistro bat ezarri zen, baina ez du aukerarik ematen ordainketarako batez besteko epea kalkulatzeko. 2017rako hasi da jada fakturak zenbatzen eta erregistratzen, sarrerako data adierazita.

Gomendatzen dugu Udalak aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren arau horiek kalkula ditzala eta kontuan har ditzala, bai eta araudi indardunak horretarako ezartzen dituen informazio-betebeharrak ere.

IV.3. ALDERDI OROKORRAK

2015eko aurrekontuari 2014ko abenduaren 29ko Osoko Bilkuran eman zitzaion hasierako onespena; alabaina, behin betiko onespena 2015eko apirilaren 29koa da. Haren edukia bat dator araudiak exigitzen duenarekin.

2015eko ekitaldian aurrekontu-aldaketa bakarra egon da, eta oker izapidetu zen; izan ere, 2016ko otsaileko Osoko Bilkuran onetsi eta hilabete horretako NAOn argitaratu zen. Bost lotura-poltsaren behin betiko kreditua gainditu zen, 22.473 eurokoa; egitate hori aurrekontuaren itxieran detektatu zen. Aldaketa diruzaintza-gerakinarekin finantzatu zen.

Kontu orokorraren edukia arauetan eskatutakoaren arabera da; salbuespen bakarra da tasekin edo prezio publikoekin finantzatutako kostuen oroitidazkia falta dela.

Gure gomendioak:

- *Kredituetarako ezarritako lotura juridikoko maila errespetatzea, eta kreditu nahikorik ez badago, aurrekontu-aldaketetara –hainbat figura daude– jotzea, gastua aitortu aurretik.*
- *Aurrekontuak eta kontu orokorra araudi indardunean ezarritako dokumentazio guztiarekin landu eta onestea, eta haietan sartzea kontu-hartzailtzak finantza-egonkortasunari eta -iraunkortasunari buruz egindako txostena.*

IV.4. UDALEKO LANGILEAK

2015eko ekitaldiko langile-gastuek 477.603 euro egin zuten, ehuneko 86ko betetze mailarekin. Zerbateko horrek Udalak ekitaldian egindako gastu guztien ehuneko 40,7 egiten du.

Gastuaren bilakaera honako hau izan da:

Kontzeptua	Gastua 2015ean	2014ko gastua	Aldearen %, 2015/2014
10 Hautetsiak	28.824	23.260	24
12 Funtzionarioak	62.080	63.402	-2
13 Aldi baterako lan-kontratadunak	248.665	259.169	-4
14 Bestelako langileak	1.443		
16 Kuota sozialak	136.294	177.905	-23
Langile-gastuak, guztira	477.306	523.736	-9

Langile-gastuak 2014an aitortutakoak baino ehuneko 9 txikiagoak izan ziren. Alde hori heldu zaie aldi baterako langileetan 10.504 euro gutxiago gastatu izanari, hautetsien lansariak 5.565 euro txikiagoak izateari eta, 2014arekin alderatuta, 12.952 euro eta 28.911 euro gutxiago gastatu izanari gizarte segurantzaren eta funtzionarioen montepioetarako kuotetan, hurrenez hurren.

Udaleko plantilla organikoa 2014ko abenduaren 29ko Osoko Bilkuran onetsi zen hasiera batez. NAOn argitaratutako plantilla organikoa okerra da, zeren eta araubide administratiboko langileen lanpostu gisa jasotzen baititu funtzionarioen lanpostu hutsak eta behin-behineko langileek betetakoak; bi aldiz jasota daude beraz. Honako hau izan zen plantilla erreala:

	Maila	Toki. Kop.	Betetako lan- postuak	Estaladura
Idazkaria	A	1	1	Administrazio-kontratua
Ofizial administraria	C	2	1	Funtzionarioa
			1	Administrazio-kontratua
Askotariko zerbitzuak	C	2	1	Funtzionarioa
				Bete gabea
Gizarte hezitzailea-animatzailea	B	1	1	Administrazio-kontratua
Gizarte langilea	B	1	1	Administrazio-kontratua
Familia-langilea	D	4	4	Aldi baterako lan- kontratudunak
		11	10	

Plantillaren egitura 2014koaren berdina da; halere, 2015ean, jarduneko egoeran agertzen ziren aldi baterako langileen lau lanpostuak oraindik ere hutsik daude.

Langile funtzionarioen bost lanpostu hutsetatik lau administrazio-araubidean kontratatutako langileek betetzen dituzte. 2015eko plantilla organikoa 2016ko otsaileko Osoko Bilkuraren erabakiz aldatu zen, jaso zezan zerbitzu anitzetako langile funtzionario baten lanpostua kontratazio administratibo baten bi-dez betetzen ari zela.

Ekitaldian zehar, Udalak obra edo zerbitzu jakin baterako kontratatutako langileak enplegatu ditu, D edo E mailakoak, enplegu sozial babesturako edo oinarritzko errentarako laguntza publikoen babesean. INEMen edo Udaleko gizarte zerbitzuen zerrenden bitartez hautatzen dira.

2014an, garbiketa lanetarako pertsona bat kontratatu zen, lanaldi osoan, D mailan. Udalbatza berriak kontratua aldatu zuen eta lanaldia eta lanpostuaren maila gutxitu zituen. Aldaketa hori ez zen formalizatu, eta lanpostua ez dago plantillan jasota.

Nominen lagin bat egiaztatu dugu funtzionarioen, araubide administratiboko langileen eta lan-araubideko langileen espediente pertsonalekin. Azterketa horretatik, honako hau ondorioztatzen da:

Espediente pertsonalak osatu gabe daude: kontratuak jasotzen dituzte, baina ez hautatzeko modua, antzinatasunaren aitortpena edo nominan eragina duten inguruabar pertsonalen egiaztapena.

Funtzionarioak Gizarte Segurantzaren araubideari atxikita daude. Bietan, langabeziarengatiko kotizazioa ordaintzen da, nahiz eta halakorik ez den egin behar. Gaur egun, ordainketa horiek berrikusten ari dira, Gizarte Segurantzari erreklamatu ahal izateko.

Araubide administratiboan dauden langileei dagokienez, antzinatasuna bosturtekoen eta graduaren arabera ordaintzen zaie.

Zenbait akats aurkitu ditugu: aparteko orduen ordainketa aurrekontuko 2. kapituluari egozte; langabeziarengatiko segurantzarako kotizazio tasak; langile bati dagokion mailatik behera likidatutako aparteko orduak; 2015eko Osoko Bilkuran onetsitako osagarri bat 2017ra arte ez sartzea plantilla organikoan; langile baten egoera aldatzea, lan-kontratuduna izatetik administrazio-kontratuduna izatera pasa baita, maila eta jasotzen zituen osagarriak jaitsita, erabaki hori formalizatu gabe; langile baten lanaldia luzatzea, mailarekin eta lanaldi nagusia ordaintzen duten osagarriez beherako osagarriekin ordainduta.

Gure gomendioak:

- *Plantilla organikoa egitea araudi indardunean ezarritakoaren arabera, behar bezala sailkatutako lanpostu guztiak jasoz.*
- *Langileen espediente pertsonalak osatzea eta langileei buruzko jarduketak onetsi eta dokumentatzea.*
- *Nominak eta Gizarte Segurantzari ordaindutako kotizazioak aztertzea.*
- *Lanpostu bakoitzari esleitutako osagarriak eta gradua langileen araudiari egokitzea.*

IV.5. GASTUAK, ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN.

Kapitulu honetako gastuak 427.437 eurokoak izan ziren 2015ean, aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 40; aurrekontu-aurreikuspen metatuen gainean ehuneko 92 bete da.

2014ko ekitaldiarekin alderatuta, gastuak ehuneko hamar egin du gora; hona xehetasunak:

	2015	2014	Aldea (%)
Errentamenduak	3.095	4.297	-29
Konponketak, mantentze-lanak eta kontserbazioa	56.292	84.721	-34
Materiala, hornidurak eta bestelakoak	412.008	338.498	22
Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak	1.042	2.736	-62
	472.437	430.252	10

Honako lagin hau egiaztatu dugu –kapituluko gastu guztien ehuneko 51 egiten du–:

Kontzeptua	Gastua 2015ean	2014ko gastua	Aldea (%) 2015/2014	2015eko gastua/kapitulua
Gestoria eta aholkularitza gastuak	73.674	55.805	32	16
Bide garbiketa eta osasungarritasun publikoa	24.805	23.809	4	5
Kultur programazioa	13.835	12.853	8	3
Jarduera historiko-artistikoen kudeaketa	4.068			1
Kirol jardueren kudeaketa	66.443	20.268	228	14
Herriko festak	56.345	50.516	12	12
	239.170	163.251	47	51

Gestoria eta aholkularitza partidaren betetzea ehuneko 54koa izan da, 39.737 eurokoa hain zuzen, eta hirigintza-aholkularitzaren arloko lansariei dagokie. Zenbateko horretatik, ehuneko 49 udalarentzako obren eta proiektuen lansariak dira, zeinak inbertsio gisa kontabilizatu behar baitziren; haien esleipena ez dago jasota. Kontraturik ez zegoen arkitekto aholkulariarekin, eta akats hori ekitaldiko laugarren hiru-hilekoan zuzendu zen, orduan adjudikazio berria egin baitzen.

Partidaren gainerakoak agente exekutiboaren lansariak jasotzen ditu, kontratu indardunaren indarrez, bai eta zenbait auzitan abokatuei eta prokuradoreei ordaindutako lansariak ere; horien erdiak kirol instalazio batzuk merkataritza-enpresa bati lagatzeko kontratua amaiaraztearen ingurukoak ziren. Ez dago kontraturik nominak eta Gizarte Segurantza kudeatzen dituen aholkularitza-enpresarekin.

Bide garbiketa eta osasungarritasun publikoa direla-eta aitortutako betebeharrak izaera horretako lanak, kontratu indardunen arabera egindakoak, ordaintzen dituzte.

Kultur programazioan abesbatza batentzako diru-laguntza bat sartzen da, zeinak gastuen IV. kapitulu-uan egon behar baitzuen: 2.000 eurokoa da.

Kirol jardueren kudeaketari buruzko partidaren, 50.000 euro Udalaren kirol instalazioetan merkataritza-enpresa batek egindako bi padel pistaren balio ez-amortizatuaren ehuneko 50aren ordainketari dagoz- kio, kontzesio-kontratuaren indarrez egina; 2014ko ekainera arte kudeatu zituen enpresak, eta orduan kontratua amaiarazi zen. 2015ean, Udalak eta konkurtso-administrazioak kontzesioa likidatzea adostu zuten; horri dagoz- kio gastu hori eta zenbateko bera duen beste bat, 2016an ordaindua. Inbertsioetan egindako gastua.

Partida horrek udal instalazioetako beste gastu batzuk ere biltzen ditu; esate baterako, kontzesioa bahitu zen aldiari buruzko fakturak –Udalak ordaintzen ditu– edo udal kiroldegiaren kudeaketari dagoz- kionak.

Kirol entitate pribatuentzako ekarpenak ere kontabilizatzen dira, jarduerak antolatzearen gainekoak –kasu batean, hitzarmenaren indarrez–: transferentzia gisa kontabilizatu behar ziren horiek.

Herriko jaiak direla-eta, hainbat gastu jasotzen dira, oro har zenbateko txikikoak, faktura baimenduetan euskarria dutenak. 4.000 euroko gastu bat, gazteen elkarte bati ordaindutakoa, diru-laguntza bat da egiazki.

Gure gomendioak:

- *Kanpoko aholkularitza kontratua formalizatzea nominak egiten dituen gestoriarekin.*
- *Udalaren aholkulari den arkitektoari egindako enkarguak formalizatzea, izenpetutako laguntza-kontratuaz kanpo ordaindu behar badira, kontratazioari buruzko araudian ezarri bezala.*
- *Aitortutako gastuaren izaera ekonomikoa zehaztea, zuzen kontabilizatzen ondasun arrunt eta zerbitzuetan, transferentzietan edo inbertsioetan, bidezkoa denaren arabera.*

IV.6. TRANSFERENTZIA ARRUNTEN ONDORIOZKO GASTUAK

Ondasun arruntengatiko eta zerbitzuengatiko 2015eko gastuak 70.887 eurokoak dira. Ekitaldi horretan aitortutako betebeharren gutzizkoaren ehuneko sei egiten dute. 2014koen aldean, ehuneko zortzi igo ziren.

Kapituluaaren ehuneko 55 Udalak elkarteei egindako ekarpenak dira: 38.916 euroko aitortutako gastuak dira. Garraioaren kontzeptua dela-eta egindako transferentziek, 12.214 eurokoek, kapituluaren ehuneko 17 egiten dute. Bi partida horiek aztertu ditugu, eta kapituluaren aitortutako betebeharren ehuneko 72 egiten dute. Sozietate publikoari egindako ekarpenak ez dira erregistratu.

Elkarteentzako ekarpenen partidak Aiegiko bost elkarteri egindako transferentziak jasotzen ditu, haiekin hitzarmenak baitaizka. Gastu aipagarriena musikako kultur elkartearen aldekoa da, eta 28.915 eurokoa da. Elkarre horrek musika irakasle bat dauka kontratatua, musika eskolak emateko, eta kuota batzuk kobratzen dizkie ikasleei.

Udalak, hitzarmenaren indarrez, elkartearen defizita finantzatu behar zuen, baina 2015ean diru-sarrerara bereki gisa kontabilizatu zituen ikasleen kuotak, eta transferentzia gisa, berriz, elkartearen gastuak. 2016an, kontabilizatze oker hori zuzendu da, eta aitortutako betebeharrak gisa defizita erregistratu da soilik, horixe baita benetan diruz laguntzen dena.

Garraiorako transferentziak "Tierra Estella Bus" bidaiarien garraio publiko erregularraren zerbitzuaren kontzesiodunarentzako kalte-ordaina jasotzen da. Hura, izan ere, Nafarroako Gobernuak eta ukitutako udalek izenpetuta duten lankidetzak-hitzarmenean dago araututa. Konpentsazio horren ehuneko 65 Foru Administrazioak ordaintzen du; gainerako ehuneko 35a udalen artean banatzen da, biztanleriaren eta herri bakoitzean emandako zerbitzuen kopuruaren arabera: ehuneko 80 eta ehuneko 20, hurrenez hurren. Egozpenerako erabili zen artikulua, 46.a, "Udalentzako transferentziak" izenekoa, okerra da. 47. A artikulua erabili behar zen, "Enpresa pribatuei" izenekoa.

Gomendatzen dugu gastuak artikulua ekonomikoa zuzenari egozte.

IV.7. INBERTSIOAK.

2015eko aurrekontuak 245.100 euroko kredituak ematen zituen inbertsioetarako. 90.719 euro egiten duten betebeharrak aitortu dira.

Deskribapena	Aitortutako betebeharrak		%
	2015	2014	
Hiri altzariak	8.251	23.556	-65
Kaleetako zoladura	36.965	38.552	-4
Kirol instalazioak	66	16.890	-100
Makineria eta tresnak	12.994	11.407	14
Altzariak, bulegoko ekipamendua eta tresnak	11.562	7.072	63
Udal planaren berrikuspena	7.948	11.685	-32
Balorazio ponentzia	5.853		
Lurrak eta herriaren ondasun naturalak	7.081	593	1094
Azpiegitura eta herriaren ondasunak		162.650	-100
Inbertsioak	90.719	272.406	-67

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, kapituluaren aitortutako betebeharrak ehuneko 67 egin zuten behera, funtsean 2014an 162.650 euroko gastua aitortu zelako herri izaerako ondasunetan; kontzeptu horrek ez zuen betetzerik izan 2015ean.

Zenbateko handiena duten partidak aztertu ditugu: Kaleak zolatzeari eta azterlan eta proiektuei dagozkienek aitortutako betebeharren ehuneko 56 egiten dute.

“Kaleak zolatzeari” partidak 36.965 euroko betebeharrak aitortzen ditu; horietatik, 27.662 euro “San Veremundo Abad kaleko zola berrizteari” dagozkio. Obrak Administrazioak egin zituen, lanen oroitidazki bati eta zerrenda baloratu bati jarraituz –udal arkitekto aholkulariaren bulegoak eginak–. Haren aldeko adjudikazioa ez zen formalizatu. Arkitektoaren gastua 2. kapitulari egotzi zitzaion,

“Azterlanak eta proiektuak” izenekoari, eta 13.800 euroko betetzea du. Udal eraikietan egindako obregatikoko gastuak eta ibilgetu ez-materiala eskuratzeko gastuak jasotzen ditu. Gastuaren izaera ez dator bat kontabilizatzearen artikuluekin.

Gure gomendioak:

- *Proiektuaren enkargua, Udalaren arkitekto aholkulariari egindakoa, formalizatzea, eta horri dagozkion lansarien kostua inbertsioen kapitulari egozte.*
- *“Azterlanak eta proiektuak” izenekoari egozte izaera ez-materialeko inbertsioak; ez, ordea, obregatikoko eta hornidurengatikoko gastuak.*

IV.8. UDAL ZERGAK.

Udal zergak	Aitortutako eskubideak		Aldearen ehunekoa
	2015	2014	2015/2014
Landa-lurraren gaineko kontribuzioa	2.400	2.416	-1
Hiri-lurren gaineko kontribuzioa	267.547	267.966	0
Ibilgailuak	106.918	104.137	3
Lurzoruaren balio-gehikuntzaren gaineko zerga	33.044	24.193	37
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	26.161	25.389	3
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ)	31.435	7.728	307
Guztira	467.505	431.829	8

Nabarmena da lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergan eta EIOZean portzentualki gertatutako igoera; halere, zerga horiek oso ausazkoak dira, zeren eta lehenengo kasuan lurren eskualdatzeen mende baitaude eta, bigarren kasuan, berriz, ekitaldian zehar egindako eraikuntza- edo instalazio-lanen mende.

Udalak aplikatzen dituen tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak jasotzen duen beheko tartean daude kontribuzioari eta lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergari dagokienez, eta goiko tartean, berriz, JEZari eta EIOZari dagokienez.

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa		0,10 - 0,50
Landa-lurra	0,8	
Hiri-lurra	0,185	
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1-1,4
Lurren balio-gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	2	2tik 3,3ra
Zerga-tasa	10	8 eta 20 bitarte
EIOZa	3,5	2-5

Balorazio-ponentzia indarduna 2004koa da; hori dela eta, zabal gairatu da araudiak berrikuspenerako ezarri duen bost urteko epea. Horixe da oraindik ere landa-kontribuzioa eta hiri-kontribuzioa bereizten jarraitzearen arrazoa.

2016ko otsailaren 18ko Osoko Bilkurak hasierako onespina eman zion landa- eta hiribalorazioaren ponentziari.

Zerga guztien langin bati buruz egindako lanari erreparatuta, ondorioztatzen da haien ordainaraztea zuzena dela eta egoki kontabilizatu direla.

IV.9. TASAK, PREZIO PUBLIKOAK ETA BESTE DIRU-SARRERA BATZUK

Tasak eta bestelako diru-sarrerak direla-eta aitortutako eskubideak 100.349 eurokoak dira – 2015eko ekitaldian aitortutako eskubide guztien ehuneko zortzi–; horrenbestez, 2014koen aldean, ehuneko zortzi egin dute gora.

Honako hau izanda egiaztatutako lagina, zeina kapituluaren ehuneko 47arena baita:

	Aitortutako eskubide garbiak
Enpresen aprobetxamendu bereziak: fakturazioaren % 1,5	28.351
Bestelako diru-sarrerak	18.777

Hegalkin eta zoruko aprobetxamendu berezien tasa, interes orokorreko horniduretarako zerbitzuen esplotazio-enpresek egindakoa, dagokion udal ordenantzan araututa dago. Hornikuntza-enpresek udalerrri bakoitzean urtero lortutako fakturaziotik heldu diren diru-sarrera gordinen ehuneko 1,5 da.

Aprobetxamendu berezien partidaren kontabilizatzen dira beste izaera bateko jabari publikoa erabiltzeagatiko diru-sarrerak –esate baterako terrazetatik heldutakoak–, zeinak beste partidaren batean sartu beharko liritekeen.

Beste diru-sarrera batzuen partidak jatorri desberdinetako ordainketak jasotzen ditu; esate baterako, ezkontzengatiko tasak, aseguru-etxeari udalak egindako ordainketak, agentzia exekutiboaren kostuak eta abarrekoak. Zenbatekorik handiena 9.183 eurokoa da eta Nafarroako Gobernutik jasotako gazte bermearen sisteman izena emandako langile gazteak kontratatzeke da.

Gomendatzen dugu diru-sarrerak jatorri ekonomikoaren arabera kontabilizatzea.

IV.10. TRANSFERENTZIEN BIDEZKO DIRU-SARRERAK

Transferentzien, ondasun arrunten eta zerbitzuen bidezko diru-sarrerak, 2015ean aitortutakoak, 659.811 eurokoak izan dira. Ekitaldiko diru-sarrera guztien ehuneko 52 egiten dute, aurreko ekitaldian baino ehuneko bi gutxiago. Transferentzien bidezko diru-sarreraren guztizko zenbatekoaren ehuneko 77,5 Toki Ogasunen Funtsetik dator.

2014ko ekitaldiarekin alderatuta, aitortutako eskubide garbiek ehuneko 1,3 egin dute behera. Honako hau izan da haien exekuzioa:

	Aitortutako eskubide garbiak		
	2015	2014	%
Estatuaren zergetako parte-hartzea	2.969	2.047	45
Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren diru-laguntza Gizarte enplegua	11.178	0	
Nafarroako Gobernuaren ekarpena Montepioa finantzatzeko	14.827	25.142	-41
23/2003 Foru Legea dela-eta Nafarroako Gobernuak udalkideentzat emandako diru-laguntza	19.073	19.073	0
Kultur jardueretarako diru-laguntza	5.270	0	
Mediku-kontsultategiko gastuetarako diru-laguntza	7.017	7.136	-2
Bake Epaitegirako diru-laguntza	745	742	0
Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza gizarte zerbitzuaren funtzionamendurako	75.284	60.179	25
Oinarritzko errenta jasotzen duten langileentzako diru-laguntza	9.340	18.585	-50
Nafarroako Gobernuaren Toki Ogasunen Funtsa	511.341	511.341	0
Transferentzia arruntak guztira	657.043	644.245	2
Baso lanetarako eta birlandaketetarako diru-laguntza	2.768	24.540	-89
Kapital-transferentziak guztira	2.768	24.540	-89

Estatuko zergetako parte-hartzeari dagokiona izan ezik, transferentziak Foru Administrazioetik etorri dira, eta azken horren kontabilitatean berretsita daude.

Transferentzia arrunten kapitulu honi Nafarroako Gobernutik jasotako 9.183 euro egotzi behar zitzaizkion, gazteentzako bermeko sisteman izena emandako gazte langabetuen kontrataziorako jasotakoak; izan ere, "Era askotako bestelako diru-sarrerak" izeneko 3. kapituluaren oker kontabilitatuta daude.

IV.11. ONDARE BIDEZKO DIRU-SARRERAK.

Kapitulua 34.439 euroko eskubideak aitortzen ditu, ekitaldiko diru-sarrera guztien ehunek hiru. Ehuneko bost egin du gora aurreko ekitaldiarekiko, zeren eta 2014an bazkaleku bati dagozkion 2013ko eta 2014ko eskubideak aitortu baitziren.

Kapituluko ehuneko 98 "Nekazaritzarako landa-lurren eta kanpinaren errentamendua" partidari dagokio, 33.720 euroko betetzearekin; honako hau da xehakatzeara:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Mahastiaren ustiaketaren errentamendua, 2015ean	28.568
Kanpin publikoaren errentamendua, 2014an	3.612
Bazkaleku bakarraren aprobetxamendurako kanona, 2015ean	1.540
Landa-lurren eta kanpinaren errentamendua, guztira	33.720

Kasu guztietan, Udalak urteko likidazioak egiten ditu, behar bezala gaurkotuta dauden adjudikazio ekintzetan onetsitako tarifen arabera. Zuzen kontabilizatzen dira.

IV.12. IBILGETUA. INBENTARIOA

Balantzeko ibilgetuaren saldoa 9.617.313 eurokoa da; 2014ko itxieran, kopuru bera izan zen. Horrenbestez, ez dira aktibatu ekitaldian zehar egindako inbertsio errealak.

Bestalde, ez dago ondasunen eta eskubideen inbentario balioetsirik, ibilgetuari eusten dionik.

Gomendatzen dugu ondasunen eta eskubideen inbentario balioetsi bat egitea, eta balantzeko ibilgetuan jasotzea bai ekitaldian egindako inbertsio errealak, bai haien besterentzeak ere, halakorik gertatzen denean.

IV.13. ITXITAKO AURREKONTUETAKO ZORDUNAK ETA HARTZEKODUNAK

Diru-sarrereren aurrekontu itxiak honako betetze hau izan zuen 2015ean.

Hasierako saldoa	Aldaketak	Guztira	Ordainketak	Amaierako saldoa
227.273	0	227.273	17.160	210.113

1996tik izandako zordunak jasotzen ditu. Kontabilitate-saldoak ez datoz bat zordunen zerrenda izendunarekin. Alde nagusiak saldo zaharrenetan gertatzen dira, 1996tik 2015era bitartekoetan.

Diru-bilketa zaileko eskubideen –diruzaintza-gerakina gutxitzen dute– kalkuluak behar baino 21.437 euro gehiago jasotzen ditu.

Gastuen aurrekontu itxiak honako betetze hau izan zuen 2015ean.

Hasierako saldoa	Aldaketak	Guztira	Ordainketak	Amaierako saldoa
201.869	53.243	255.112	254.404	708

Nabarmenezkoa da ordainketaren portzentaje altua. Honako hauek dira aldaketak: deuseztatzen - 37.510 euroko kopuru garbia eta 2015ean hartzekodunak sartzeari dagozkion 90.751 euro.

Deuseztatze aipagarriena, 36.000 eurokoa, 2005eko faktura bati dagokio, zeren eta bi aldiz kontabilizatuta baitzegoen, oker bat tarteko. Deuseztatzea zuzena da.

Saldo hartzekodunen sartzea, 90.750 eurokoa, hilerria zabaltzeko obrei dagokio; izan ere obra horiek 2015eko aurrekontuko aitortutako betebeharrak gisara kontabilizatu behar ziren.

Gure gomendioak:

- *Itxitako diru-sarrereren saldoak berrikusi eta, kasua bada, garbitzea.*
- *Urtean egindako gastuak ekitaldi horretako aurrekontuari egotzi behar zaizkio; aparteko kasuetan, aurrekontu indarduneko kredituei aplikatuko zaizkie aurreko ekitaldietako gastuak, Osoko Bilkurak alde zuzenetik kreditu berezi edo kreditu-gehirri bat onetsita.*

IV.14. AURREKONTUZ KANPOKO ZORDUNAK ETA HARTZEKODUNAK

	Hasierako sal- do	Zuzenketak	Kobran- tzak	Ordainke- tak	Amaierako saldoa
Bikoiztutako ordainketak edo gehiegizko ordainketak	-4.550	0	83.759	41.244	-47.065
Epe laburreko ezarpenak	100.000	0	100.000	0	0
Fidantzak eta gordailuak	-429	0	1.500	0	1.071
Aurrekontuz kanpoko zordunak, guztira	95.021	0	185.259	41.244	-45.994
PFEZaren atxikpenak	10.889	0	36.485	36.051	11.323
Gizarte Segurantzarako atxikpenak	2.571	0	20.268	19.744	3.094
Montepiorako atxikipena	-3.057	0	0	0	-3.057
Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	55.138	0	0	0	55.138
Bahiturak	338	0	0	0	338
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak, guztira	65.879	0	56.753	55.795	66.836

Ordainketa bikoiztu edo gehiegizkoetan, idatz-ohar batzuk erregistratzen dira, zeinak, egiazki, kobrantzak baitira. "Hartzekodunak, kobrantza bikoiztu edo gehiegizkoengatik" aurrekontuz kanpokoari egotzi behar zitzaizkion.

Aplikatzeko dauden diru-sarreraren hasierako eta amaierako saldoa 55.138 eurokoa da, eta ekitaldian ez da mugimendurik izan.

Aiegiko zeharkalea egiteko obraren ziurtagirietan egindako atxikipenei dagokie. 2009an adjudikatu zen obra hori. Atxikpenak beren xedeari aplikatu zitzaizkion ekitaldi hartan bertan.

Fidantzek eta gordailuek 1.500 euroko kobrantza bat erregistratzen dute 2015ean: Udalarri fidantza bat itzultzeari dagokio hori. Fidantza hori Udalak berak eratu zuen 2014an, eta jasotako fidantza gisa erregistratu zuen, eraturako fidantza gisa kontabilizatu beharrean.

Gomendatzen dugu aipaturako saldoak garbitzea eta aplikatzeko dauden diru-sarreraren saldoa kentzea, zeren eta jada bere xedeari aplikatuta baitago.

BEZak honako mugimendu hauek dauzka ekitaldian:

	Hasierako sal- do diru-sarrerak	Diru- sarrera garbiak	Kobrantzak	Egiteke kobrantza	Hasierako sal- do gastuak	Gastu garbiak	Ordainketak	Egiteko daudenak Ordainketa
BEZa	1.419	87	87	1.419	0	0	0	0
Ogasun Publikoaren BEZa- rengatiko likidazioak	11.415	0	11.415	0	0	5.237	5.237	0
	12.834	87	11.502	1.419	0	5.237	5.237	0

Ogasun Publikoaren BEZarengatiko likidazioak atalak kobratzeko zegoen 11.415 euroko hasierako saldoa zeukan, 2011tik 2014ra bitarteko urteei zegokiena. 2015ean, 9.110 euro kobratu ziren, eta gainerako kopurua, 2.305 euro, ezeztatu egin zen, zeren eta itzulketa iraungita baitzegoen. Ezeztatze hori aurrekontuz kanpoko diru-sarrera gisa erregistratu zen; formalizatzeagatik, berriz, aurrekontuz kanpoko gastu bat erregistratu zen. 2.305 euroko zenbateko hori gastuen aurrekontuari egotzi behar zitzaion, Zerga Ogasunak eraikin sozialaren tabernako kanonaren BEZa zela-eta eskatutako likidazioen 2.932 euroko kopurua bezala.

IV.15. HIRIGINTZA

Aiegiko Udal Plan Orokorrari 2013ko abenduan eman zitzaion behin betiko onespena. Aurrekoa, 1999koa, ordeztzen du, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeari egokitzeke. Nafarroako Hirigintzari buruzko Informazio Sistemari argitaratuta dago.

Hiri lurzoru finkatua, aurreko planeamenduko aurreikuspenak errespetatzen dira neurri handi batean. Etxebizitzaren gehiegizko dentsitatea duen lurzoruak da, zeinean zerbitzuen gabezia bat baitago: aparkalekuak, espazio libreak eta ekipamendua. Hori dela eta, hirigintza-araudia aldatu da, eremu horretako etxebizitzaren gehiegizko kopurua mugatzeko.

Hiri-lurzoru finkatu gabeak, zortzi sektore aurreikusi dira, antolamendu berriko bizitegi-erabilera izan dutenak: 252 etxebizitza jarriko dira gehienez.

Planak zuzenean zehaztutako xehakatuak ezartzen ditu Iratxe Monasterioaren ingurua babesteko; bertan, antolamendu berriko bizitegi-erabilera bi sektore diseinatzen dira. Horietako bat jada urbanizatze- eta eraikitze-fasean dago. Besteak gehienez ere 22 etxebizitza aurreikusten ditu.

Lurzoru mota horretan, planak hiru sektore marrazten ditu ekipamendu publikoetarako. Horietako bi, 15.948 m²-ko guztizko azalerarekin, kirol eremuaren balizko zabaltze baterako erabiltzen dira. Hirugarrena, 11.132 m²-ko azalerarekin, haur eta lehen hezkuntzako zentro bat eta 0-3 urteko eskola bat jarzeko erreserbatu da.

Hiri-lurzoru sektoretan gabeak, Planak 7 sektore aurreikusten ditu, 272.126 m²-ko gehieneko azalerarekin. Antolamendu berriko bizitegi-erabilera izan du, gehienez ere 548 etxebizitzarekin.

Hiri-lurzoru sektoretan gabeak 220.114 m²-ko sektore bat aurreikusten du, antolamendu berriko industria-erabilera, Lurzoru-erreserba bat badago, Lizarrako industrialdea zabaltzeko.

2014an udal plana onetsi ondoren, ez da garapenerako plangintza-tresnarik onetsi 2016ra arte; izan ere, urte horretan udal planaren bi aldaketa onetsi ziren.

2015ean, hiru xehetasun-azterlan onetsi ziren.

Udal plan orokorraren 1. sektorearen 11. etxesailari dagokion xehetasun-azterlana –partikularrek sustatua eta lurzatiaren barruan eraikinen gehieneko lerroak aldatu nahi dituenak– aztertuta, ondorioztatzen dugu xehetasun-azterlana tresna egokia dela, eta haren izapidetzea zuzena izan da, proposamena aurkeztu den garaian indarrean zegoen hirigintza-araudiaren arabera.

Lurzoruaren Udal Ondarea Udalak ez du ondasunen inbentariarik –halako izaearekin, atxikia eta bereizita–, ez eta lurzoruaren udal ondarearen erregistrorik ere.

Gomendatzen dugu erregistroa eta lurzoruaren udal ondarea bera ezartzea Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarri bezala.

IV.16. GASTIZUN SL UDAL SOZINETATEA

2013ko azaroan, Udalak behin-behineko onespina eman zion soilik udalarena izanen zen kapitaleko merkataritza-sozietate bat, Gastizun SL, sortzeari. Eskriturak 2014ko urtarrilean egin eta inskribatu ziren merkataritza-erregistroan.

Horren arrazoia konkurtso-egoeran dagoen merkataritza-sozietate pribatu bat da, zeina udal instalazioen kudeaketaren kontzesioaren titularra baita. 2013ko uztailleko auto baten bitartez erabaki zen konkurtso-egoera hori, eta Osoko Bilkurak 2014ko ekainean erabaki zuen kontratua amaitzea.

Gastizun SLren xede soziala da Udalaren kirol instalazioetarako eta Udalaren titulartasuneko bestelako edozein instalaziotarako kudeaketa-zerbitzuak ematea. 2014ko ekainean, Osoko Bilkurak kirol instalazioen kudeaketa enkargatu zion, lau urterako, eta instalazio horiek errentan eman zizkion, urteko 6.000 euroko (gehi BEZa) kanonarekin.

Sozietateak 3.500 euroko kapital soziala dauka. 2015ean, -77.349 euroko emaitza ekarri zuen. 2014an, emaitza -30.720 eurokoa izan zen. Balantzearen azterketatik, ondorioztatzen dugu ondare-desorekako egoera bat dagoela, ondare garbi negatiboa baitu.

Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko 27/2013 Legeari jarraituz, sozietateak 2015eko abendua baino lehen deseginda behar zuen, ondoz ondoko bi ekitaldietan ustiaketa-emaitza negatiboak eduki izateagatik.

Gomendatzen dugu Udalak behar besteko ondare-ekarpenak egin ditzala sozietateak ondare-oreka izan dezan, edo, bestela, azter dezan Udalaren kirol instalazioak beste formula juridiko baten bitartez kudeatzeko aukera.

Auditore Francisco José Etayo Salazar jauna izan da lan honen arduraduna, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izapideak bete eta gero.

Iruñean, 2017ko apirilaren 11n

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

